

1/2015 FORU DEKRETUA, urtarrilaren 19koa, Gipuzkoako Foru Aldundiko aterpetxeetan zerbitzuak erabiltzeagatik eska daitezkeen prezio publikoak erregulatzen dituen araudia onartzen duena

(2015eko urtarrilaren 22ko 13 zk.ko GAO)

OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Araua osoa eta eguneratua jasotzen da bertan

2005eko abenduaren 13ko 66/05 Foru Dekretuaren bitartez Gipuzkoako Foru Aldundiko aterpetxeetako zerbitzuak eta instalazioak erabiltzeagatik eska daitezkeen prezio publikoak erregulatzen dituen araudia onartu zen; aldi berean, foru dekretu horren eranskinak prestazio horien tarifak finkatu zituen 2006rako.

Gipuzkoako Foru Aldundiko aterpetxeetako zerbitzuak eta instalazioak erabiltzeagatik eska daitezkeen prezio publikoak urtero finkatzen dira eta, 2012kora artekoak, Arabako eta Bizkaiko foru aldundiekin adostu izan dira. 2012ko prezioak argitaratu zirenean, diferentzia txiki bat gertatu zen igoera portzentajeetan.

2013ko prezioak zehazteko, Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuko Gazteria Zuzendaritza Nagusiari komenigarria iruditu zitzaion 2012ko tarifen zenbatekoari eustea, eta Diputatuen Kontseiluak horrela onartu zituen.

2014. urterako, Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuko Gazteriako Zuzendaritza Nagusiak prezio publikoak % 0,5 igotzea proposatu zuen, eta berariaz salbuespen batzuk gehitu zituen, aurretik ere aplikatzen zirenak aterpetxeak Foru Aldundiak berak erabiltzen zituenean bere jardueretarako, esate baterako, udako kanpainak eta udalekuak. Bestalde, gazteak eta helduak bereizteko adina 25 urtetan finkatu zen (ordura arte, 29 urtetan zegoen), hartara, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araudira egokitzeko, hari jarraikiz adingabeak ez baitaude zerga hori ordaintzera behartuta.

Nahiz eta 2015. urtean 2014ko tarifak mantenduko diren, prezio publikoen araudian aldaketa batzuk planteatzen dira eta, ondorioz, beste araudi bat onartu beharko da.

Horregatik, Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuak egindako proposamenez eta gaurko bileran Diputatuen Kontseiluak eztabaidatu eta onartu ondoren,

XEDATU DUT

Lehenengo artikulua. Xedea.

Gipuzkoako Foru Aldundiko aterpetxeetako zerbitzuak emateagatik eska daitezkeen prezio publikoak erregulatzeko dituen araudia onartzen da. Prezio publikoen zenbatekoak eranskin bezala jasotzen dira.

Bigarren artikulua. Ordaintzera behartuak.

Foru dekretu honek arautzen dituen prezio publikoak ordaintzera behartuta daude Gipuzkoako Foru Aldundiko aterpetxeetako zerbitzuak erreserbatu edota erabiltzen dituztenak.

Hirugarren artikulua. Sortzapena.

Aterpetxeetan ematen diren zerbitzuak erabiltzeagatik zehaztutako prezio publikoak erreserbak egiterakoan ordainduko dira, foru dekretu honen 4. eta 5. artikuluetan adierazitakoaren arabera.

Laugarren artikulua. Erreserba eta ordainketa egiteko prozedura.

1.- Aterpetxeak erabiltzeko erreserba honela egingo da:

- a) Egonaldia egiteko datak, plazak eta zerbitzuak baldin badaude, Gipuzkoako Foru Aldundiaren gazte aterpetxe bat erabili nahi dutenek erreserba egiteko datuak eman beharko

dituzte eta egonaldiaren prezioaren % 25a ordaindu; kopuru hori konturako aurrerakintzat hartuko da. Ordainketa hori egiten ez bada ez dira erreserbatutzat hartuko ez plazak eta ez zerbitzuak.

b) Ordainketa egin eta aterpetxera joan aurreko hamar eguneko tartean egonaldiaren % 75eko gainerakoa sartu beharko da.

c) Bi ordainketen artean, erreserbaren arduradunak erreserbatutako plaza kopurua aldatu egin ahal izango du; gehienez ere, % 10 murriztu ahal izango du hasieran egindako erreserba. Ikastetxeek eta haur edo gazteen elkarteek ez dute denbora muga hori izango eta aterpetxean sartzeko egunera arte egin ahal izango dituzte aldaketak.

d) Egonaldiaren % 75ari dagokion bigarren zatia ordaintzen ez bada, erabiltzaileak galdu egingo du aurrerakina eta aterpetxea erabiltzeko eskubidea.

e) Interesatuak erreserba egiteko unean ere ordaindu dezakete egonaldiaren zenbateko osoa, eta betiere, aterpetxean sartzeko 10 egun baino gutxiago gelditzen direnean.

2.- Ordainketak horretarako ezarritako sistemen bidez egingo dira.

Bosgarren artikulua. Erreserben baliogabetzea eta itzultzeak.

Erreserbak baliogabetzeko eta itzulketak egiteko erregimena honako hau izango da:

a) Erreserba baliogabetzen bada aterpetxean sartzeko eguna baino bi hilabete edo gehiagoko aurrerapenarekin, ez da ezer kobratuko eta erreserba egiterakoan ordaindutako guztia itzuliko da.

b) Erreserba baliogabetzen bada aterpetxean sartzeko eguna baino bi hilabete eta hilabete arteko aurrerapenarekin, prezioa erreserbari dagokion erdia izango da eta beste erdia itzuli egingo da.

c) Erreserba baliogabetzen bada aterpetxean sartzeko eguna baino hilabete baino gutxiagoko aurrerapenarekin, prezioa erreserbaren % 100 izango da eta ez da ezer itzuliko.

d) Ez da ezer kobratuko eta ordaindutako kopuruak itzuli egingo dira a), b) eta c) ataletan aurreikusitako baliogabetzeak ezinbesteko arrazoiak direla eta gertatu badira Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Zerbitzuaren ustez, edo baliogabetzea zerbitzuak egonaldia bertan behera utzi duelako gertatu bada.

Xedapen gehigarria.

Areto eta instalazioak erabiltzeko orduan, ostatua hartuta dutenek lehentasuna izango dute, ostatua hartuta ez duten erakundeek egindako eskaeren aurrean.

Xedapen indargabetzailea.

Indarrik gabe geratzen da 2005ko abenduaren 13ko 66/2005 Foru Dekretua, Gipuzkoako Foru Aldundiko aterpetxeetako zerbitzuak eta instalazioak erabiltzeagatik eskatuko diren prezio publikoak ezartzen dituen.

Amaierako lehen xedapena.

Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuari behar den ahalmena ematen zaio, foru dekretu hau garatu eta betearazteko beharrezkoak diren neurriak hartu eta xedapenak emateko.

Amaierako bigarren xedapena.

Foru Dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

ERANSKINA¹

Gipuzkoako Foru Aldundiko aterpetxeetako zerbitzuak emateagatik 2019. urtean eskatuko diren prezio publikoen zenbatekoak.

1. 2019an Gipuzkoako Foru Aldundiko aterpetxeetako zerbitzuak emateagatik eskatuko diren prezio publikoak honakoak izango dira:

DENBORALDI BAXUA / TEMPORADA BAJA

ZERBITZUAK / SERVICIOS	Murriztua / Reducida (*)		Arrunta / Normal (*)	
	Gazteak < 25 urte Jóvenes < 25 años	Helduak ≥ 25 urte Adultos/as ≥ 25 años	Gazteak < 25 urte Jóvenes < 25 años	Helduak ≥ 25 urte Adultos/as ≥ 25 años
Ostatu osoa Pensión completa	22,50 €	28,00 €	32,00 €	45,00 €
Ostatu erdia Media pensión	18,50 €	22,50 €	24,50 €	37,00 €
Bazkaria Comida	8,00 €	10,00 €	10,00 €	12,30 €
Afaria Cena	8,00 €	10,00 €	10,00 €	12,30 €
Askaria Merienda	2,00 €	2,00 €	2,00 €	2,00 €
Gaua eta gosaria Alojamiento y desayuno	14,50 €	17,00 €	19,50 €	28,00 €

DENBORALDI ALTUA (maiatza, ekaina, uztaila, abuztua eta iraila) / TEMPORADA ALTA (mayo, junio, julio, agosto y septiembre)

ZERBITZUAK / SERVICIOS	Murriztua / Reducida (*)		Arrunta / Normal (*)	
	Gazteak < 25 urte Jóvenes < 25 años	Helduak ≥ 25 urte Adultos/as ≥ 25 años	Gazteak < 25 urte Jóvenes < 25 años	Helduak ≥ 25 urte Adultos/as ≥ 25 años
Ostatu osoa Pensión completa	24,50 €	30,00 €	35,00 €	47,00 €
Ostatu erdia Media pensión	19,50 €	23,50 €	26,50 €	39,00 €
Bazkaria Comida	9,00 €	11,00 €	10,00 €	13,50 €
Afaria Cena	9,00 €	11,00 €	10,00 €	13,50 €

¹ Eranskinaren idazketa otsailaren 5eko 2/2019 Foru Dekretuak emandakoa da. Foru Dekretu horrek Gipuzkoako Foru Aldundiko aterpetxeetan zerbitzuak erabiltzeagatik eska daitezkeen prezio publikoak erregulatzen dituen 2015eko urtarilaren 19ko 1/2015 Foru Dekretuaren eranskina aldatzen du (2019ko otsailaren 18ko GAO).

ZERBITZUAK / SERVICIOS	Murriztua / Reducida (*)		Arrunta / Normal (*)	
	Gazteak < 25 urte Jóvenes < 25 años	Helduak ≥ 25 urte Adultos/as ≥ 25 años	Gazteak < 25 urte Jóvenes < 25 años	Helduak ≥ 25 urte Adultos/as ≥ 25 años
Askaria Merienda	2,00 €	2,00 €	2,00 €	2,00 €
Gaua eta gosaria Alojamiento y desayuno	15,00 €	19,00 €	21,50 €	29,00 €

(*) Zehaztutako tarifa horiek BEZa gabe dira.

(*) Las tarifas señaladas no incluyen el I.V.A.

Oharrak:

Tarifa murriztuan zein normalean bereizi egin beharko da erabiltzaileak 25 urtetik beherakoak diren ala ez egonaldia egiten den unean. Informazio hori erreserba egiteko unean eman beharko da.

Elkarte edo taldeen erreserbak egiteko gutxienez 12 lagun eskatuko dira.

Gau eta gosariko, ostatu erdiko eta ostatu osoko tarifetan sartuta dago izaren zerbitzuari dagokion prezioa.

Abuztuan gutxienerako egonaldia bi gauekoa izango da, eta aterpekide txartela dutenek abuztuan gehienez bost gau emango dituzte guztira foru aterpetxeetan.

*** Tarifa murriztua:**

Tarifa murriztua kasu hauetan aplikatuko da:

— Ikastetxeak.

— Haur edo gazteen elkarte edo taldeak.

— Irabazi asmorik gabeko entitateak, legez eratuak.

— Desgaitasuna duten pertsonen elkarte edo entitateak, legez eratuak.

* **Tarifa arrunta:**

Tarifa arrunta, beste tarifaren bat ez dutenei ezarriko zaie.

2. Foru dekretu honetan ezarritako prezio publikoa ordaintzeko betekizunetik kanpo geratzen dira Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko jarduera programetatik datozen egonaldiak, adibidez, Udalekuak programa eta antzekoak.

Salbuetsita egongo dira irabazi asmorik gabeko elkarteak zeinek Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuak parte hartuta, antolatuta edo itunduta, kirol, kultura edo gazte jarduera baten esparruan gazte aterpetxeetan egonaldiak egiten dituzten. Salbuetsita egoteko, jardueraren balio publiko edota soziala baieztatzen duen txosten teknikoa eta departamentuko foru diputatuaren berariazko baimena beharko dira.